



TOKIKO AGENDA 21 IBARRAKO EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21


Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **altuagoa** da.

Inplikaturik dauden **eragileen kopurua** ere lurraldeko batez bestekoa **baino altuagoa** da.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena


2013ra arte zenbat gauzatu dugu?

Planaren **%59**
gauzatu da
6 urtetan

%10eko
gehikuntza
2013an


Eta zer adierazten du?

Lortutako gauzatze maila baxua da oinarri bezala desiragarria den **helburuko balioa** hartuz, baina **handiagoa** urte horretan bertan lurraldeko **batez besteko balioa** hartuz.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena

Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an amaitutako ekintza batzuk

1.3.1 Haurtzaindegi berri bat sortu

2.2.2 Ibarra barneko mugikortasun plan bat burutu (jarduera batzuen artean TAO sistema jartzeko parte hartze prozesu osoa aurrera eraman da)

5.1.2 Tokiko merkataritza mantendu eta indartuko duten politikak burutu, soziazionismoa bultzatuz (Ibarrako Merkataritza Biziberritzeko Plana (PERCO) egin da ekintza honen barruan)

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza**
batzuk:

**Mugikortasun
iraunkorraren** kudeaketa
%68ko ezarpenarekin

- 2.3.2 Sentikortze programen garapena
- 2.3.1 Herri barruko abiadura mantsotzeko seinaleztapena hobetzeko eta dispositiboak ipintzeko gestioak egin Foru Aldundiarekin

**Baserri bizitza, natura,
paisaia eta ondare
kulturalaren** kudeaketa
%67ko ezarpenarekin

- 4.2.4 Nekazaritza ekologikoa eta ingurumenarekiko errespetuzkoa dena ere sustatu
- 4.2.5 Baserrien seinaleztapenak jarri.
- 4.4.1 Udalaren lurrak (mendiak) garbitu eta txukuntzeko ekintza iraunkorrek martxan jarri

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

Herrian **ingurumenari kalterik egin** gabe lana
bermatuko duen **ekonomia bizia** bultzatu, **%50**ko
ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.ibarrakoudala.net

Ibarrako Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

